



Gurpil aulkiko gomazko paletako finala Lasarte-Orian jokatuko da

Aurten Gurpil aulkiko gomazko paletako I. txapelketa antolatu dute Gipuzkoako Euskal Pilota eta Kirol Egokituen Federazioek. Honetan, Patxi Fadrique herritarra izan da lehian eta larunbatean, abenduaren 17an, Loidi-Barrengo frontoian jokatuko da final handia. /6. orrialdea

Erregeen Kabalgatako kartela egiteko marrazki lehiaketa

3-12 urte arteko haurrek abenduaren 23rako aurkeztu behar dituzte lanak

Megaba elkarteak marrazki lehiaketa antolatu du haurren artean irudi hori gero Erregeen Kabalgatako kartelean erabiltzeko. Lehiaketako gaia Ekialde Urruneko Errege magoak da eta gai honekin zer ikusia duen edozer marraztu dezakete etxeko txiki eta gazteek.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 3 eta 12 urte arteko haurrek parte hartu ahal izango dute lehiaketa eta hiru maila desberdinetan egongo dira banatuak: batetik 3 eta 6 urte artekoa, bestetik 7 eta 9 urte artekoa eta azkena, 10 eta 12 urte artekoa.

Adin bakoitzeko irabazle bat egongo da eta ordainetan oparia jasoko dute. Azkenik



Erregeen eguneko kartela iragartzeko erabiliko da marrazkirik onena.

hiru irabazle horien artean, bat aukeratu da Erregeen Kabalgata iragartzeko kartelean jaritzeko.

Teknikari dagokionez, edozein marrazketa modu erabil daiteke, margoak, akuarelak, errotuladoreak, etb.

Haur bakoitzak marrazki bat aurkeztu dezake. Hau A4 batean eginda egon beharko da eta ezingo du tolestura edo markarik izan. Atzeko aldean urearen datuak jarriko dira, izena, abizenak eta adina. Guraso baten edo tutorearen datuak ere bertan agertuko dira, izena, abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbakia gehituz.

Aurkeztutako lan guztiak elkartearen jabetzakoak izango dira eta honek eskubidea izango du kartel edo iragarkietan erabiltzeko.

Lanak Manuel Lekuona Kultur etxean egongo den postontzian utzi behar dira abenduaren 23a baino lehen. •

Udal bulegoak aste osoan itxita egon dira

Aurreko astean bi jai egun astearte eta ostegunean izanik, Udaletxea itxita egon zen aste osoan. Pablo Barrio alkateak barkamenak eskatu ditu Udala abenduaren 5etik 9ra itxita egon delako "sortutako eragozpen" guztiengatik: "gehiegikeria" iruditu zaio, "Lasarte-Oriako herritarrei zerbitzua murriztea dela" eta hala ere "aurreko udal gobernuak hartutako erabakia aurrera eraman beharrean" aurkitu direla adierazi du prentsa ohar baten bidez. "Aurrera begira alkatetza honen asmoa horrelakoak berrituz ez gertatzea da". •



Udaletxeko atean honako oharra jarri zen gerturatzeko ziren herritarrei udaletxea itxita zegoela adierazteko.

ALBISTEA /2

Presoentzat laguntza jasoko du Parrokiak hilaren 14, 15 eta 16an

ALBISTEA /2

Lehen kritikatzeko zuena ez duela zuzendu leporatzen dio PSEk Prietori

KULTURA /3

Zero Multimuskala eta Euskal Jaiak aurkeztu ziren ostiralean

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua Etxeko txorizoa
Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua
Txistorra Baserri pateak



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren Kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Presoentzat laguntza jasoko dute parrokiak 14, 15 eta 16an

- Zigorra baino maitasuna behar dutela dio elizaren idatziak
- Abenduaren 24an joango dira Martuteneko espetxera bisitan

Lasarte-Oriako parrokiak presoak eduki ditu gogoan Gabonetako jaien atarian, eta ondorengo egunetan egingo dituen elkartasun ekintzen berri eman du. Horrela, abenduaren 14, 15 eta 16an presoiei bidaltzeko gauzak jasoko dituzte, parrokiak elizak duen lokal zaharrean. Bestalde barrutiak "Eguberria espetxean 2011" idatzian maitasuna adierazten die presoiei, eta bergizarteratzeko zigorra baino egokiagoa dela dio. Bestalde, abenduaren 24an joango dira presoak bisitatzera Martuteneko espetxera.

Urtero bezala, Lasarte-Oriako parrokiak, Martutenen preso daudenezko gauzak jasoko ditu abenduaren 14an, 15ean eta 16an parrokiaren Okendoko etxe zaharrean.

Presoiei ondo datozkien gauzen zerrenda kaleratu dute eta bertan dira, besteak beste, barruko arropa berriak eta galtzerdiak, telefono txartelak (txipik gabekoak, 5 eurokoak), tabako gorria, metxeroak, hortzak garbitze-

ko eskuila eta pasta, txanpua eta gela, pilak, kartazal eta zigiluak, turroi biguna, txankletak eta kirol oinetakoak. Hauek jasoko dituzte aipatutako egunetan parrokiak.

Eguberria espetxean

Bestalde, Gipuzkoako apaizek "Eguberria Espetxean 2011" izenburua duen idatzia irakurriko dute mezetan. Elizbarrutiko Espetxe Pastoraltzaren oharrean "presoei jasan behar duten lotsa eta mina" gogora-

tzen da; hauek bergizarteratzeko kode penala eta zigorra baino bide hobierik badagoela esaten da; "erraza ez izan arren, zerbait aldatu beharra dagoela" uste du elizbarrutiak.

Zigorrena baino maitasunaren bidea proposatzen du eta beraz, Elizbarrutiko Espetxe Pastoraltzak pastoral urterako goiburua: "Bergizarteratzea: erkidego osoaren zeregina" hartu du.

Martutenera bisita

Pastoraltzak material bilketa ere aipatzen du oharrean: "hurbil dugu Eguberria eta, urtero bezala, Jainkoaren maitasuna eta baita gurea ere agertu nahi diegu Martutene eta beste presondegiatan aurkitzen diren guztiei. Eguberri bezperan joango gara Martutenera zuek maitasun ezkerriko erregaliak eramatera eta danon artean banatzera. Benetan poztuko dira, poztu eta eskertu. Eskerrik asko".

SEI HILABETE ALKATETZAN

Udal Gobernuaren koherentzia eta esperientzia falta salatu du PSEk

Etexez etxe banatu duten orri batean Udal Gobernu-kideen eta bereziki Ana Isabel Prieto Obrak eta Zerbitzuak batzordeko arduradunaren jokabide eta kudeaketa kritikatu du Lasarte-Oriako PSEko Jesus Zaballos buruak. Bera agintean zela Plataformak salatzen zituen arazoek sei hilabete ondoren konpondu gabe segitzen dutela salatu zuen asteazkenean prentsurrekoan.

Zenbait plaza, farola, lur, edukiontzia eta abarren egoera kaxkarrak salatu zuen Jesus Zaballosek. "Barregarria eta koherentzia gutxi-koa da lehen kritikatzeko zitzutenak, orain ere, sei hilabete ondoren, egoera berebera daudela". Konkreteki Arranbide plazaren egoera aipatu zuen PSEko bozeramaileak eta herriko buzoietan bota duten orrian kasu batzuk besterik ez dituztela jarri esan zuen Zaballosek, askoz ere gehiago dituztela argudiatuz. •



GPUNTUA GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA

Finaleko txartelak salgai Jalgin

Igandea 17an, arratsaldeko 16:30etan Donostiako Ilunbe zezen plazan jokatu da Gpuntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final handia, Beñat Gaztelumendi, Jexux Mari Irazu, Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi, Unai Agirre, Agin Rezola, Alaia Martin eta Jon Martin bertsolarien artean. Apalategi, Rezola eta Alaia dira berriak. Amaia Agirre azkenean finaleratu gertu gelditu da, 472,5 puntu eskuratu zituen Hernaniko finalurrekoan, Jon Martinek baino 7 gutxiago. Finaleko sarrerak salgai daude Jalgi tabernan datorren osteguna abenduaren 15era bitartean, aurretik denak saltzen ez baldin badira behintzat. Bestela, www.gpuntua.com/sarrerak web-ean eskuratu daitezke. Sarrerak 18 euro balio du, 12 Bertsotzale Elkarteko bazkideentzat eta 8 16 urtetik beherakoentzat. •



Mundialak Gara eta Xumelako kideek elkarrekin abestu zituzten euskal kantak Mintzodromoan.



Giro ona Mintzodromoan.- Euskararen egunaren bezperan, ostiralean, hilaren 2an euskaraz mintzatzeko elkartu ziren herritarrek bete egin zuten Okendon jarritako karpa eta ederki pasa zuten solasaldi, "Mundialak gara" eta Xumelaren euskal kantu eta Mailu Arrutiren bakarriketarekin. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Euskal Jaia igandean ospatuko da

Herriko hogeit hamar elkarteren lankidetzari esker egingo da jaia Okendo plazan

Iaz izan zuen arrakasta ikusirik, berriro ere, hainbat elkarte batu dira gure herriaren Euskal Jaia ospatzeko. Jaialdia igandean izango da Okendo plazan. Bertan eguerditik aurrera, hainbat ekintza burutuko dira, haur, zein helduentzat. Musika, janaria, herri kirolak... giro ederra egingo da gure herriko erdi gunean. Antolatzaileek, gainera, baserriar jantzia armai-rutik atera eta janzteko deia egin diete herritarrei.



Multimusikala eta Euskal Jaia antolatu duten elkarte eta taldeetako ordezkariak Udal ordezkariekin egin zen prentsurrekoan.

Bigarren urtez, Euskal Jaia antolatu da Lasarte-Orian. Jaia igandean, abenduaren 18an izango da. Goizaldetik gauera arte, hogeit hamar elkarrekin antolatutako jai honek euskal giroaz beteko ditu gure herria eta, batez ere, Okendo plaza.

Goizetik herria giroten

Ostiralean Multimusikaleko antolatzaile eta Udal ordezkariekin batera egin zen aurkezpenaz azaldu zuten Euskal Jai-ko antolatzaileek egitaraua.

Honela, goizean goizetik, hasiko da jaia txistularien doinuarekin. Hauek herritarrak esnatu eta herria alaituko dute.

Ostean, 11:00ak aldera, elkarte ezberdinen kalejira hasiko da Okendo plazatik.

Kalejira honek lau geldialdi egingo ditu: bata Kale nagusia eta Ola kaleko bihurgunean, bigarrena Irla Plazan, beste bat San Pedro parroki ondoko Elizatze plazan eta azkena Okendora iritsi baino lehen, Landaberri BHI-n.

Atsedean hauetan, Biyak Bat elkarteak abesbatza eta Xumela koruaren kantuak entzun eta euskal dantzak ikusteko aukera egingo da.

Gunearen irekiera

Eguerdiaren 12:30ak aldera, Euskal Jaia-ren gunea irekiko da Okendo plazan.

Honetan, Ostadar SKT eta elkarte gastronomikoen eskutik, hamaiketako gozoa, txoria egosia, salda eta haragia, dastatu ahalgo da.

Honetaz gain, bertsolariak, Biyak Bat elkarteak abesbatza-aren emanaldia eta Ostadarrek antolatutako haurrentzako herri-kirolak izango dira.

Bazkari herrikoa

Ondoren, elkarte gastronomikoen antolatutako bazkari herrikoa egingo da Okendoko karpan.

Menua patatak errixar erara, saiheskia, postrea, edariak eta kafea izango da.

Txartelek 16 eurotako balioa dute helduentzat eta 16 urte azpikoek 6 euro ordainduko dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, txartel hauek Jalgi kafe-antzekoan eta Artizarren egongo dira eskuragarri abenduaren 16a arte, ostirala.

Dantza eta musika

Bazkal ostean, giroa mantentzeko, Xumela koruak Euskal kantuak eskainiko ditu eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza taldearen, zein Erketz EDT-ren emanaldiak izango dira.

Arratsaldeko 17:00ak aldera, herritar guztiei irekia den erromeria antolatu da.

Gainera, arratsalde osoan zehar, dantzan galdutako indarrak berreskuratzeko taloak eta gaitainak izango dira euskal jaien gunean.

Parte hartzea deia

Euskal Jai-ko antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte igandean baserriarrez jantzi, Okendora hurbildu eta jaiaz gozatzera. •

Herritarren laguntza eskatu dute Multimusikaleko kideek

Herritarren laguntza eskatu zuten Multimusikaleko antolatzaileek, eskenatokiak karpak jarri eta jaso edota Okendon egongo den barran lan egiteko.

Ostiralean, abenduaren 2an, aurkeztu zuten Zero Multimusikalaren egitarau eta kartela. Bertan lasarteoriarren parte hartzea eskatu zuten urtero herrira hainbat musika talde ekartzeko dituen jaialdirako.

Deialdi irekia egin zuen Multimusikala kolektiboak musika jaialdi erraldoi honen inguruan mintzatzeko. Villa Mirentxuko beheko aretoan bildu ziren zenbait lagun gaur egun Multimusikalaren egoera nola dagoen aztertu eta bide

batez, aurrera begira hartu beharko lukeen norabideaz eztabaidatzeko.

Aurten hotzari eta eurari aurre egiteko prest da Multimusikala izan ere, berogailua duen 15x20 metroko karpak jarriko dute jaialdiko eskenatoki nagusiarri lotuta.

Antolatzaileen eskaria

Multimusikala antolatzen dutenen iritziz, "herriak herriaren-tzat" antolatzen duen festa izanik, herritar guztien parte-hartzea beharrezkoa da.

Horregatik, eskatzen dute herritarren laguntza, ostiralean bertan eskenatokia muntatzeko, festibala bukatu ostean karpak jasotzeko, baita festiba-



Multimusikaleko kartela eta egitaraua aurkeztu ziren hilaren 2an Villa Mirentxun.

lak irauten duen egunetan barran aritzeko ere.

Trumoi tabernan txandak betetzeko taula jarri dutela adierazi zuten eta dagoeneko interesa duen orok bertan izena eman dezake. •

Gainera, kontakturako e-mail bat zabaldu dute: multimusikala@gmail.com eta euren blog-ean (multimusikala.blogspot.com) nahi adina informazio dagoela jakitera eman zuten. •

BILDU

Euskal Presoen eskubideen alde

Lasarte-Oriako Bilduko zinegotziek, datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den manifestaldiarekin bat egingo dute.

Mobilizazio horren harira, abenduaren 16ean udal honetako Bildu-ko zinegotziek barua egin eta eguerdiko 12:00tan kontzentrazioa egingo dute udalaren aurrean. Kontzentrazio honekin bat egin nahi duen herritar oro gonbidatua dago. •

ATERPEA

Gabonetako sortak

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatariaren elkarteak Gabonetako kanpaina jarri du martxan, urtarrilaren 5a arte.

Hamasei komertziok haien produktuetako sortak zozketatuko dituzte. Honela, denda hauetan erosketak eginaz, zozketentzako txartelak eskuratuko dituzte herritarrak. •

KIROLA

Ostadar SKT-ren bazkide kanpaina gaur hasten da

Ostadar SKT-k 2012. urteko Bazkide Kanpaina gaur irekitzen du. Lerro hauen bidez, herritarrak animatu nahi dituzte Ostadarreko egoitzatik, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu eta bazkide egitera. Abenduaren 23ra arte luzatuko da kanpaina hau.

Era berean, bazkide direnei laguntzen jarraitzeko deia egiten diete, "kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko zuten diru-laguntza ezinbestekoa baita".

Hau guztiaren gain, elkarteak mendiko atalean federatu nahi duenak abenduaren 21a baino lehenago bulegotik pasa behar duela jakin arazi du. •

AURKEZPENA

"Auzolanaren kultura" liburuen aurkezpena Jalgin ostegunean

Abenduaren 15ean, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan Jasone Mitxelorenaren "Auzolanaren kultura" liburuen aurkezpena antolatu du Lasarte-Oriako Udalak Auzolan Elkartearekin batera, Jalgi kafe-antzekoan.

Liburu honetan auzolanaren azterketa historiko egiten da eta hausnarketaren bidez, gure herriaren auzolana zer izan den eta zer den azaldu nahi da. •

Gabonetan kalitate onena betiko dendetan

Aterpea elkarteak erosketak egiterakoan **garaiz ibiltzeko eta produktuen kalitateari begiratzeko gomendatzen du** Aterpean erosi eta opariz betetako **gabonetako sorta bat** eskuratu daiteke, sorta bat zotz egingo da denda bakoitzeko



Eguberriak gainean dira, eta Aterpea elkarteak dio bere dendetan erosketak egiten dituenak erabaki ona hartu duela: kalitatezko produktuak etxean bertan ditu lasarteoriatarrek, betiko dendetan dira aukerarik onenak. Gainera denda batzuetan gabonetako sorta bat prestatu dute abenduaren 9tik urtariraren 5era bitartean erosle guztien artean zozketatzeko. Sorta bat denda bakoitzean. Erabili ezazu eta baliatu zaituzte Aterpeako txartelaz!



Patxi Fadrique/ Kirolaria

“Larunbatean herritarren babesa jasotzea polita litzateke”

Pala txapelketako finala larunbatean, abenduak 17, Loidi-Barren-en jokatuko da 11:00etan

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak Gorpil Aulkiko Gomazko Paletako I. Txapelketa antolatu du. Urrian hasi ziren partidak eta herrian jokatuko den finalarekin bukatuko da txapelketa. Honetan parte hartuko du Patxi Fadrique herritarrek Urko Peñarekin bikote eginez.

Maidar AZURMENDI

Pala txapelketan garaipena lortzen saiatuko dela dio Patxi Fadrique lasarteoiarrek. Lehen aldia da bere herrian lehiatzen dela eta horrek nolabaiteko indarra ematen dio. Larunbatean herritarrek animatzen ikustea gustatuko litzaioke.

Urko Peñarekin egiten duzu bikote txapelketan. Ondo moldatzen al zarete elkarrekin jolastean?

Ondo ezagutzen gara. Parte hartzaile guztiak elkarrekin entrenatzen dugu asteartean Zubietako frontoian aspalditik eta gure artean bikoteka jokatzeo ez dugu arazorik izaten.

Kasu honetan finalerako partidatan jokalaria bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera eratu dira bikote berriak eta hala egokitu zaigu. Dena den, Urkorekin Usurbilen ere jokatuko nuen.

Palako finala nola espero duzu?

Guretzako garrantziatsuenak ondo pasatzea da. Kasu honetan ohi bezala finala borrokaturik izango da, baina baita polita ere. Txapelketa ligaxka moduan jokatuko dugu, Usurbil, Antzuola eta Zegaman egin ditugu gainontzeko partidak eta lehen aldia da Lasarte-Orian.

Finala zure herrian izanda, desberdin ikusten al da?

Ez bereziki. Etxean jokatzea bada nobedadea baina orokorrean gu ikustera ez da jende asko gerturatzen, ez daukagu jarraitzaile askorik beraz azkenean berdin dio non egiten den partida. Noski finala hemen izanda, gustatuko litzaidake jendea gerturatzea. Nire ustez partida politik jokatzen ditugulako eta ikusteko entreenigarriak dira.

Dena den, egia da pala txapelketako partidak jokalariren herrian egitea izan dela federazioaren asmoa. Mota honetako lehen txapelketa izan da.

Irabaztea espero al duzu?

Ezin da jakin. Gutako edozeinek irabaz dezake, berdina entrenatzen dugulako eta elkarrekin. Beraz, oso ondo ezagutzen dugu elkar eta badakigu nola jolastean dugun.

Zubietan entrenatzen duzue. Lasarte-Orian ez al dago leku aproposik?

Egia esan, bestelako arrazoiak daude. Denak gara Usurbilgo pilota elkarterako kideak beraiek izan zirelako lehenak pilota egokitua eskaintzen. Usurbilgo frontoia eta Zubietakoa elkarteak kudeatzen ditu eta horregatik errazagoa da guretzat hauetan tarte fin-



Patxi Fadrique lasarteoiararra Edorta de Anta lagun eta lehiakidearekin Lasarte-Orian egindako entrenamenduan.

koa edukitzea. Entrenatzeko orduak finkatuta ditugu eta Zubietako frontoia ordu horietan guretzat dagoela ziurtatuta dugu. Lasarte-Orian Loidi-Barren frontoia oso ondo dago baina kiroldegiko beste instalazioetara ezin gara sartu, ez daude egokituak.

Bestela Donostiarra joaten zara entrenatzera?

Bai saskibaloia eta tenisa Donostian egiten ditut. Azken hau Ondarretako Real Club de Tenisen, bertan hasi nintzen eta nirekin oso jarrera ona dute. Entrenatzaile bat daukat eta entrenatzeko pista libre bat nahi dudanerako. Hori eskertzekoa da.

Lasarte-Orian ordea, ezin dut tenisean egin. Michelingo pistak itxita daude goizetan, eta arratsaldetan haurrek egoten dira, kiroldegian berriz, instalazioak ez daude molda-

tuta eta padeleko kantxetara gorpildun aulkiarekin sartzeko ezinezkoa da atea estuegiak direlako, pena da.

Berriki Tenerifen izan zara saskibaloia partida jokatzen Salto Bera Bera taldearekin. Asko entrenatzen al duzue? Bidaia luzeak egiten dituzue partidak jokatzen.

Nahikoa entrenatzen dugu. Aurtun jende aldaketa izan dugu taldean, besteak beste entrenatzaile berria dugu eta oraindik moldatzen ari gara. Oraingo bi partida irabazi ditugu eta beste hiru galdu. Aurreraka goaz baina aurtun sailkapenaren erdian amaituko dugula uste dut, iaz lehenengoak izan ginen.

Estatu mailan jokatzen da saskibaloia txapelketa eta Aviles, Zamora, L'Hospitalet, Bartzelona, Zaragozan ditugu partidak. Tenerifera joatea bereziki luze eta nekeza izaten da, hamabost orduko bidaia baita. Hegazkina hartzea beti da nekezagoa guretzat. Gorpildun aulkian ibiltzen garenok bi ordu lehenago egon behar dugu aireportuan, lehenak hegazkinera igotzen gu izaten garelako eta beste aulki bat daramagunez, horiek igotzeko ere denbora behar izaten delako. Behin iritsita, azkenak gara hegazkinetik ateratzen. Orokorrean autobusean mugitzen gara.

Pala, saskibaloia, tenisa zer-bait gehiago?

Padelean ere hasi naiz. Tenisean soilik bi urte daramatzat eta estatu mailan 80 jokalaria

inguru ibiltzen gara. Iaz erdiko postutan bukatu nuen denboraldia eta aurtun, laugarren izan naiz sailkapen orokorrean. Oso gustura nago tenisarekin. Uda izaten da batez ere txapelketak egiten diren garaia eta aurtengoan asko entrenatu nuen aurretik, ia egunero, eta oso eroso ibili naiz lehiatzen.

Nola egiten duzu guztiei denbora eskaintzeko?

Egutegia moldatzen dut kirol bakoitzari behar adina denbora eskaintzeko. Orain saskibaloia eta pala dira eta gero, martxoan, tenisa hartuko dut sailkapenaren erdian amaitzean. Tenisean ez daukat babeslerik eta hau gabe lehiatzea oso zaila da, estatu mailan jokatzen dira txapelketa guztiak eta gastu asko dira, bidaia, hotelak...pentsatu behar dut datorren denboraldia nola moldatu.

Betidantik izan zara kirolzale?

Txikitik bai, baina gero lanean hasi nintzenen erabat urte nuen. Orain duela sei urte hasi nintzenetik, ez naiz gelditu. Ia egunero entrenatzen nabil eta kirol gehienak probatzen saiatu naiz, arrauna adibidez.

Jendea animatuko al zenuke zure partidak ikustera joateko?

Noski, palan partida politik egiten ditugula iruditzen zait. Ikusteko modukoak. Larunbatean Lasarte-Oriako bizilagunen babesa izatea polita litzateke niretzat. •



Loidi-Barren-en egindako entrenamenduan txapelketako zenbait parte hartzaile izan ziren eta Jalguneko kideen bisita ere jaso zuten.



Auzolanaren garrantzia

JASONE MITXELORENAREN "AUZOLANAREN KULTURA" liburua aurkezpena, LASARTE-ORIAKO UDALAK antolatuta, AUZOLAN ELKARTEAREKIN batera.

Auzolana antzinako garaietatik iritsi zaigun lan-sistema da, komunitate bateko kideen arteko elkarlanean oinarrituta dagoena. Lan-sistema baino, herriak ekiteko, antolatze eta bere burua eratzeko duen modua da. Azterketa historikoaren eta hausnarketaren bidez, liburu honek gure herrian auzolana zer izan den eta zer den azaldu nahi du.

OSTEGUNA 15
19:00ETAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Egunero Erakusketa

ESTUDIO DEL PINTOR akademika-ko ikasleen erakusketa. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **egun osoa**



Asteartea, 13

Diaporana

MIKEL TXELO URDANPILLETAK KAUKASOAN BARRENA egin zuen bidaia kontatuko du diapositiba emanaldi baten bidez. MUNTTERI-AEK EUSKATEGIAN, **18:00etan**.

Asteazkena, 14

Kontzertua

EUSKAL MUSIKA TRESNEI buruzko KONTZERTU PEDAGOGIKOA eskainiko du, O+HATZ. KUTXAK babestua. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan**.

Osteguna, 15

Zinea

OKENDO ZINEMA taldearen eskutik, "EL TRUCO DEL MANCO" filma ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 4,30 euro.**

Ostirala, 16

Antzerkia

LAN ETA LAN ANTZERKI TALDEAK "LA LARGA CENA DE NAVIDAD" antzezlana eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **20:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 2 euro.**

Pop rock gaua

ROCK PRIVADO eta LATITUD 43N taldeen eskutik pop rock gaua. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**.



Larunbata, 17

Antzerkia

HAURRENTZAKO ANTZERKIA sailaren barruan, OGRÓ TXIKIA antzezlana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera, 3,30 euro.**



Igandea, 18

Kontzertua

ALBOKA eta ALBOKA TXIKI ABESATZEk EGUBERRIETAKO KONTZERTUA eskainiko dute. AMA BRIGITAREN KOMENTUAN, **12:30ean**.

Zinea

OLENTZERO eta IRATXOEN JAUNTIXOA filma eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera, 3,30 euro.**



Ostirala, 16

20:00etan, Okendoko karpa

RUDE KANKA SOUND SYSTEM

22:30ean, Okendoko karpa

(5 EUROTAKO BONOLAGUNTZA LANGILENTZAT, LANGABEEK BORONDATEA)
OI SALIMOS, 40 D FIEBRE, LA KINKY BEAT eta
RUDE KANKA SOUND SYSTEM

Larunbata, 17

12:00etan, Okendoko karpa

GRAFFITI AZKAR LEHIAKETA, BREAKERRAK, FAMILI MBOLO PERKUSIO TALDEA, KULTO KULTIVO, BUNKER 13 eta ARRI JEFF RAP TALDEAK

12:00etatik aurrera, Kalean zehar

MUTHIKO ALAIK FANFARREA

13:00etan, Artizar taberna

IBAN NIKOLAI

Arratsalde osoa, Okendoko karpa

DJ BULL

17:00etan, Kalean zehar

MUTHIKO ALAIK FANFARREA eta FAMILI MBOLO PERKUSIO TALDEA

17:00etatik aurrera, Jalgi Kafe-antzokia

LOUISE MICHEL eta RAS MIGEL TA FARI

18:00etan, Abend Kafe-antzokia

FLATTENED FROGS MASSACE eta A HUMAN DISASTER

19:00etan, El Bar de Mau

MAKULU KEN eta OREINDIK

20:00etan, Trumoi taberna ondoko labaderoan

PUS, KEEP DIGGIN eta THE TRIFASIKS

21:00etatik aurrera, Okendoko karpatik hasita

ZOZONGO BATUKADA

22:00etatik aurrera, Ilargi Taberna

A RASTA-K SOUND

22:00etatik aurrera, Jalgi Kafe-antzokia

DJ BULL

22:30etik aurrera, Okendoko karpa

BUFFALO, EGIN PATCHANGA BAND, ANAIA-ARREBAK eta ADABEGI

Igandea, 18 Euskal Jaia

09:30ean, Kalean zehar TXISTULARIAK

11:00etan, Kalean zehar

ELKARTEEN KALEJIRA

12:30ean, Okendoko karpa

EUSKAL JAI GUNEAREN IREKIERA:
BERTSOLARIAK, BIYAK BAT ELKARTEKO
ABESBATZA, HERRI KIROLAK...

14:00etan, HERRI BAZKARIA

Bazkal ostean, EUSKAL KANTUAK ETA DANTZA

17:00etan, LASARTE-ORIATARRAK DANTZARA ERROMERIA



Oharrak

Gasolina merkeago Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeako txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beharpena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu nagusia.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, bizikletara-

ko kasko bat, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, neskaren eskumuturreko bat, eguzkitako betaurreko bat, telefono mugikorra, haur zamarra bat eta belarririkatu batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteke epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Ostadar SKT-ko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldeak jakin arazten du, aurten ere gabonetako loteria duela salgai, 92.646 zenbakia, hain-

zuzen ere. Erosi nahi duenak Geltoki kaleko bulegoan eskuragarri du.

Bestalde, aurten BM Supermerkatuak emandako otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean.

Adi abenduaren 23an Ostadarreko atean eta www.ostadarkf.org helbidean zenbaki irabazleak jarriko baitute.

GAP saio berriak kiroldegian

Udal Kirol zerbitzuak, GAP ikastaro berri bat eskaintzen du.

Saioak astelehena eta asteazkenetan arratsaldeko 16:00etan dira. Saioen irau-

pena 50 minutukoa da eta bertan gorputzaren atal ezberdinak landu eta garatzen dira, adibidez, gluteoak, sabela eta hankak. Eta tarteka indoor txirrindularitza saioak ere txertatzen dira.

Ikastarora dagoeneko hasita dago. Izena eman nahi dutenek edo informazio gehiago nahi dutenek Kiroldegiko bulegoetara jo edo 943 376182 telefonora dei dezakete.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzun adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

"Akelarre" kolektiboa sortu dute herriko gazteek

Akelarre izena eman zaio Lasarte-Oriako gazte kolektibo sortu berriari. Herrian duela hainbat urte izan ziren gazte taldeek egindako lanari jarraipena emateko eratu da Akelarre. Haiek diotenez, garai hartako gazteen izpirituak kalean dirau, bizi bizirik. Horregatik, belaunaldi berrien garaia dela sinetsita daudenez, gauzak aldatzen lagundu nahi duen ororentzat "ateak irekita" dituztela esan dute.

L arunbatean, abenduaren 3an, egin zuen Akelarre gazte kolektiboak sorrera bilera eta aurkezpen ekitaldia eta zenbait ekintza antolatuz zituzten haien egun berezirako.

Arratsalderako prestatua zegoen poteoan hainbat lagunek hartu zuten parte eta musikaz lagunduta, giro ederrean ibili ziren gazteak tabernaz taberna.

Behin Loidi-Barrenengo frontoira iristean egindako ekintzen artean, Gazte Olinpiadetako joko edo kirol proba ezberdinak izan ziren dibertiagarrienak.

Aurkezpen ekitaldia

Jolasak amaituta, aurkezpen

ekitaldia egin zuten. Lehenik, herriko gazteek hainbat gairen inguruko iritziak biltzen zituen bideo proiektio bat jarri zuten.

Honetan besteak beste, etxebizitzaren prezioa, ikasketak euskaraz egiteko aukera, berdintasuna edota zaborraren kudeaketa sistemaren inguruan galdetu zitzaizen herriko hainbat gazteri eta hauen beharrak eta egonezinak agerian geratu ziren haien erantzunetan.

Ostean, aurkezpen ekitaldiari ekin zitzaion idatzi baten irakurketarekin.

Bertan, "errautsuetan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta kultura libre eta euskalduna ardatz harturik",



Trikihots-ek dantzan jarri zituen herriko sorgin gazte guztiak, akelarre batean.

arlotan eragiteko beharra ikusi eta horiekiko konpromisoa berretsi zituzten.

Egoera iraultzeko gazte taldea izanik, iraultza, norberaren baitan sortzen den zer bait dela ohartarazi zuten, pausu txikiekin helburu handiak lor daitezkeela sinetsita.

90 lagun afarian

Afarian berriz, 90 bat gazte bildu ziren eta eurek prestatutako menua dastatu zuten.

Afalostean, hiru kontzertuz gozatzeko aukera izan zuten. Lehen, Pau Alabajos bakar-lari valentziarraren kontzertu bikaina izan zen. Hitzak kataluniarrez baziren ere, argi eta garbi komunikatzen zuen kantariak barruko samina herriko gazteen aurrean kantatutako bere abesti sakonetan.

Eguna amaitzeko, Trikihotsen erromeria eta DjZeboren emanaldia gaueko ordu txi-

kietara arte luzatu ziren.

Logo lehiaketa

Akelarre logo bila dabil. Aproposena aukeratzeko, lehiaketa bat jarri dute abian.

Parte-hartu nahi duenak abenduaren 22a baino lehen akelarregk@gmail.com helbidera bidali dezake bere proposamena edo eskuz egin nahi duenak, Trumoi tabernan utzi dezake horretarako prestatutako kutxa batean. •

gabonetan...
munduari bira 9 egunetari
en navidades...
la vuelta al mundo en 9 días

Epea/Plazo: Abenduaren 22a (22 de diciembre)

abenduaren 26/27/28/29/30 de diciembre
urtarrilaren 2/3/4/5 de enero

amaraun ludoteka

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behea) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

Merito de las 900h de arte hasta las 1300h de arte



Extxarro

erretegia

Astebukaerako menua
Karta
Despedidak
Bataioak
Familiarteko bazkariak
.....

Etorri, probatu eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Txikiardi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964